


• MATTIN •

ADIORIK EZ, GEROARTEBAIZIK!



Arizkuren

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' •

(IDAZLEA)

Oraitxe hedatu da berria: 56 egunez gose-greban egon ondoren, abenduaren 26an, jaten hastea erabaki duela Josetxo Arizkuren.

Frantziako prentsak ez du ia-ia aipatu ere egin ekinaldia, eta Paris-ko gobernuak ez du zipitzi adierazi euskal presoek eskabideen alde. «*Pas de concessions aux terroristes espagnols*». Kitto.

Kanpotik ikusirik, iruinseme mirregarriak heriotzaren ertzearaino bereraino irmo eramandako gandhiar ekintza, antza, fruiturik gabe amaitsu bide da. Gertakaria ezin larriagoa da. Nabarmen utzi baitu bortzikeriari gabe ekintza ino-
ta honek ez daramala jadanik mo-
ra. Osasuna benetan arriskuan jar-
ritza ere (Arizkuren nola irten den
hilabeteen buruan baizik ez da ongi
neurtuko), aginteak ez duela amore
ematen.

Hegoaldeko gose-grebalariak ere ez dute espainiar agintarien aldetik etekin hobirik lortu. Beste nafartar baten izena datorkit burua: Etxandirena; sei astez ezzer jan gabe egon ondoren, ospitalera eraman behar izan baitzuten.

Aznari eta Chiraci, Thatcher ande-
re harakinak irlandar grebalarie-
ko irekitako bideetatik abiatuturik,
gose-greba oro zaizkie berdin.

Izan dezagun egia jator aitortzeko kuraia bederen. Mugarik gabeko gose-grebalarien jokabidea miresgarria da, zalantzarik gabe. Bortxar-
rik gabea, baketsua, saindua, nahi
den guztia. Baina gaur egun, eta
hemen, ez darama inora.

Mende hasieran, India jende-
tsuan eta beste zibilizazio batean,
heini handi batez eragile gertatu ba-
zen ere, Europan ez. Irlandarrak
eta indiarrek Inperio bereko borro-
kakide izanik, eta Mahatma Gan-
dhiaren maila aparta medio, birlan-

datu egin zen borroka bidea Eire-
ra. Baina arrakasta urriz. Nork da-
ki Cork-eko alkatea gose-greba mu-
gagabe horietako batean hil zenik?
Alderantziz ere, nork ez du gogoan
Thatcher-en kontrako gose-greba
ikaragarrian. IRAko zazpi lagun eta
INLAko beste hiru, heiburua lortu
gabe hil zirenik? Nork ez du gurean
Crespo Galende-ren kasu lazgar-
ria?

Eta ulergarria da. Gandhi-ren
satyagraha famatua (Egiarekiko
Atxikimendua, euskaraz), Estatola-
tria batean bizi diren Frantzia eta
Espainia inperialtean, hutsaren
hurrena da.

Pertsona baten sakrifizioak, es-
kubidearen zerbitzutan eskainia
izan arren, ez ditu agintari politikoa-
k batera inarosten.

Areago zapalduakoa Euskal He-
rri madarikatua baldin bada: «Les
Basques, on en a marre!...»

Bide bat hetsi da. Gosez hildik ere,
zeren truke hilko? Gobernuak ema-
na dute erantzuna: «jatea daukate». Eta
PSOEko oposizioek ere gar-
biki esan dute nolako kontzientzi-
drama jasaten duten: «*De huelga de
hambre, nada. Simplemente varios
presos han decidido perder unos ki-
los por ese procedimiento*».

Presoek eskubideen ukoaz gain,
iseka, iskiriyo urrikigabea, sarkas-
mo ankerra.

Chevenement gor damutuak eta
Mayor frankista damutugabeak,
esku ez esku daramate euskaldunen
aurkako gurutzada bakarra. Na-
bardura politikoa ezabaturik, fun-
tuta ageri: fatxak fatxa, eta txaku-
rrak txakur. Baina badago besterik.
Zeren-eta nork egin du gose-greba
56 egunez? «*Pacifista*» ahoberoren
batek ote? Ez horrela? «*Terrorista*»
badago da gartzela barruan ba-
rauta; Kantauri izeneko euskal
«*terrorista*» preseski.

Eta gauzak honetaraz gero, bene-
benetan, ezer ez da ulertzen. Aber-
tzale «*terrorista*» eta abertzale
«*gandhiarra*» pertsona berak baita-
ra! Multzo bera edo... bertsua bede-
ren. Nola txalotuko, beraz, gaitzetsi
behar dena?

Guk, aldiz, gose-greba iraunko-
rrean espazio genituen apezpikuak,
terrueriano *pacifista* hiper demokra-
tak, kultur gizon argituak, politika-
ri profesionalak... Inoxoak gu!

Baina beroiek beti ezagutzen di-
tuzte jatetxe dotoretako mizkiri-
nak; lurgorrian egun hauetan, tri-
pa-alak beharturik «*biolentoe*»
edaten dituzten plastikozko ur boti-
lak baino. Nori berea.

Gure kontra mintzatzerakoan
Gandhi aipatzen dutenek ez dute
gose-grebarik egiten. Eta gure he-
rriak badaki. Badaki fartsantea nor
den, eta nor ez. Eta kontuan hartu-
ko du.

Nornahi konturatua da jadanik
14 hilabetez meniak iraun duen bi-
tarrean, «*biolentoe*» egin dituztela
urratsak. Eta Madrilek eta Parisek,
berrix, Bakearen eta Justiziaren alde-
deko etnuneaz baliatu beharrean,
xaxaketa lotsagaldua burutu dute-
la, eta abertzaleen ehizari sekula
baino azkarrago eutsi diotela.

Nork barreiatzen du hemen, be-
raz, bortzikeriaren hazia? Txetxe-
narian eta Kosovon bezalaxe, hemen
ere inperialista arrotzek, abertzale-
en kontrako garaitzapen gupidaga-
bea helburu bakartzat harturik, os-
tikoari ukaldia erasten diote, eta oi-
nazeari iraina. Horixe ikusi dugu
hamalau hilabete horietan barre-
na. Eta horixe ere 56 egun gogor
horietan.

Bihotzaren erditik, Josetxo, agur
eta ohore hiri! Agur eta ohore gre-
baki gertzie! Gosta-ala gostarik
ere aurrera egiten duzenok eraiki-
tzen baituzue gure herriaren geroa.

••• INMA ERREA

Balantzetan



Txinari buruzko erakusketan,
Guggenheimen, anitz gauza
iruditu zitzaidan deigarri, bai-
na orotan bi aipatuko ditut:
zibilizazio txinatarrak eta
mendebaleko alderatzen zi-
tuen panel erraldoia eta bitxi
baten itxura osoa zuen pieza
bat, zeina gerra-gurdi baten zati
bat baitzen, berez. Panela egokia
zen, nire irudikoz, gure mendebaleko
kulturaren harrokoa apaltzeko, ezen argi erakus-
ten baitzuen txinatarrak askoz zibilizazio zahar-
rago eta sofistikatuago baten jabe direla. Gerra
gurdiaren piezak, ordea, heriotza eragiteko tra-
mankuluak sofistikazioa ere oso zaharra dela
frogatzen zuen.

Garai honetan, balantzeak dira ohiko: nonahi
ditugu iragan urteko gertaera nagusien laburbil-
dumak, urte berriaren patua igartzen diguten
orakuluak ondoan.

Mendea eta milurtekoa akabatzeaz ditugula,
XX. mendea laburbiltzen saiatu da hainbat, eta,
saio horietako batean, orotan bortitzena izendatu
dute mende hori. Halakoak botatzen dituztenek,
apika, bizi diren garaia eta lekuari gehiegi begir-
ratzen diote, mendeetan hogeiki bakarrik konta-
tzea, oso batuketa mugatua egitea baita. Gizate-
ria askoz zaharagoa da. Zutabeak batek zioen
bezala, gurea une historikoa dela pentsatzea oso
erakargarria da; ez da, ordea, batere komeni-
garia, historia seriozoki aztertzeko.

Biolentziaren kontzeptua bera ere ez dute ongi
aztertu, agian. Nik ez dut batere garbi zer den
bortitzago: hiltzea gerra latz baten erdian ala pi-
ramide bat eraikitzen ari bitartean, esklabu gisa.
Bortitzagoa al da, judutarra izanik, erregimen
nazi batek preso hartu eta gasez hiltzea, beltza
izanda, Afrikan merkatari batzuek bahitu eta
Ameriketara eramana izan ondoren, jipoi eta zi-
gorren ondorioz akabera jasotzea baino?

Jakina, mende honetan, inoiz baino jende
gehiago hil da bortizki. Baina, ez al da inoiz baino
gizaki gehiago jaio ere, munduan? Ez der ukatu-
ko XX. mende honetako basakeria. Izen ere, gi-
zateriak beti bezain krudela eta bortitza izaten
segitzen du. Baina zaila da mende hau edo beste
hori biolentzago dela esatea. Zoritzarrez, herio-
tza eta sufrimendua eragiteko aztura gizateria
bezain zaharra da.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Joan den mendekoa

■ Berretsi dugu, atzenez, 2000 efektua,
hainbaten neuronetan eta urdailetan izanda-
ko eraginaz gain, baten batzuk diru mordoska
bat egiteko festa besterik ez dela izan. Garbi-
gailuek igual funtzionatzen dutela (askok nola
jartzen diren jakin gabe, alegia) eta alferrik be-
giratuko diola jendeak hipoteka kolpetik ken-
de ote diotela. Gehienez etxean Bill Gatesen
agur bat jasoko dugula, «mila esker guztia-
gatik» dioena. Notiziekiri hasi dugu urtea: ez
zelako joaten beldurra ematen zuen eta doan-
nean oraindik handiagoa ematen duen Jelt-
tsin, aero-bahitzailak edo 2000 efekturik ga-
be gaur gose greba amaيتuko dutenak. Eta be-
reziki halek gogoan zituztenak. Azken hauen,
presoez, utzitako tokian hasi dute mendea.
Tira, datorren urtera arte ez omen da mendea
benetan hasiko. Ordurako aurreko mendeko
kontua bihurtu behar dugu.